

“Gramatika gaitasuna lantzen”

1998an argitaratutako liburua. EGA titulua ateratzeko ikastaroak egiten ari ziren ikasleentzat laguntza-liburu moduan sortua. Hezkuntza Sailak argitaratua Irale programa barruan.

Ezaugarriak:

Hizkuntzari buruzko azalpen oinarrikoak euskaraz eta ariketa-bilduma atalez atalekoa. Amaieran, birpasa moduan ariketa nahasketa.

Bertsioak

Paperezko bertsioak hainbat argitalpen izan zituen. Duela urte batzuk agortuta dago eta ez da argitalpen berririk egin.

2013 urtean IKASBIL atarian jarri zen digitalizatuta eta zuzenketa automatikoa erantsiz ariketei. Ez da pdf aukera ematen, nahiz eta horrelako eskaera asko jaso diren.

Bertsio digitalean liburu osoa ireki liteke edo, gidari jarraiki, eskatutako itema dagokion azalpen eta ariketekin.

Deskarga datuak

Taula honetan biltzen diren datuak 2015 urteari dagozkionak dira.

Gramatika gaitasuna lantzen (gida orria)	28600
Liburu osoa	5624
Ortografia 1	3361
Ortografia 2	738
Mugagabearen erabilera	4071
Zenbaten deklinabidea	929
Baten deklinabidea	836
Zenbatzaile distributiboak	718
Zenbatzaile zehaztuak	683
Deklinabide bereziak	1176
Erakusleak. Elkar, Bere burua	1895
Postposizioak	1451
Aditza. Indikatiboa	4527
Aditza. Baldintza	6600
Aditza. Ahalera	6384
Aditza. Subjuntiboa	4468
Aditza. Agintera	1525
Aditz bereziak	1469

Iritzi	681
Baldintza jokatu gabea	1467
Konparazio-perpauak	2468
Superlatiboa	763
Perpau distributiboak	723
Harridura-perpauak	1073
Nominalizazioa	3995
Erdarazko gerundioa euskaraz	1836
Ere lokailua	1290
Erlatibozko perpauak	3152
Kausazko esaldiak	2804
Perpau kontzesiboak	1766
Moduzko perpauak	2145
Perpau osagarriak: Konpletiboak eta Zehar-galdera	4787
Denborazko perpauak	2811
Birpasa	1268

Asko-gutxi?

Datuak esanguratsuak izateko konparazioak egin beharko lirateke, ez da erraza, ordea. IKASBILeko beste edukiarekin alderatuz gero, zalantzarik gabe gehien eskuratzen diren edukien artean daude liburu honetakoak. Gainera, nahiz eta ez erakutsi modu “ikusgarrian”, ez dute galtzen presentziarik, urteak pasa ahala, astero jaisten baitira.

Adibidez, 2016ko urtarriletik otsailaren 25era (56 egun) 5.536 aldiz zabaldu da Gramatika gaitasuna lantzen bildumako gida-orria, beraz ia egunean 100 aldiz.